

Herri Urrats? Noski!

ELENA BELOKI



HERRIALDE guzietako gizarte egituraketa, irakaskuntzak berezko papera jokatzeko du. Honetaz gehiegi zekien Jules Ferryk eta xede horrekin eskola frantsesaren ezaugarri nagusiak diseinatzeari ekin zion. Ferryren eskolaren izakerak berezko papera jokatu du Estatuaren jakobinizazio prozesuan. Frantses hizkuntza eta irakaskuntzak, gainerantzekoak, alegia euskara, korsikarra, bretoaia... ezabatzeaz gain, hizkuntza berari dagozkion balore sozial, historiko eta kulturalak hots berri bakoitzaren nortasuna agertzen duten konposanteak baztertzeari lotu zaio. Baztertu eta Estatu zentralizatzailearekin bat zetorren biztanlego pasibo bat hezi.

Jragan asteartean Argi Perurenak, bihar ospatuko den Herri Urrats festaren antolatzaileetarikoa batek, Frantses gobernuak irakaskuntza euskararen ofizialtasuna errekonozitzea aurtengo helburu bat zela esatean, arestian aipatzen nuen burutazioak asaldatu ninduen.

Frantses Estatuak biziki ongi konprenitu du zein den euskararen balioa, horregatik nahiz eta legeak sortu hauek paperean edota paporantzian geratu dira. Frantses Estatuak inork baino hobeki jakin badaki, hizkuntzaren funtzio sozialaren garrantzia, hargatik ez du Europako hizkuntza guttitiuen Karta sinatu.

Frantses gobernuak badaki, eta J.L. Davantek berriki oroitarratzen zigun, hizkuntza herriaren bihotza dela eta horregatik Mitterrandek Parisen Euskal Herriko hautetsi eta kulturekile batuzei esaten zien «euskal kultura sustatzeko ez zela baitatzapadako, departamendu berri bat» eta honekin batera «Espainiari ez kalte egitea». Frantses eta espainiar estatuak ondo konprenitu dute; eta hemengo instituzioek, eta guk?

Mende laurden bat

TXILLARDEGI



MAIATZAREN

9an Baionako Katedrala bihurtu da berriro borroka abertzalearen gertaleku nagusi. Ez baita lehenengo aldiz!

ETAko errefuxiatu mordo bat ikusten dugu ekintzaren ardatz: «egoitza-assignaziopean» Frantziaren barrera sakabaturik bizi direnek, Euskal Herriara itzultzea erabaki dute; urrats honi dagozkion arriskuak beren gain hartuz, eta Katedralean itxialdia hasiz. «Euskaldunok Euskal Herrian bizitzeko eskubidea dugu» aldarrikatu dute ozenki. Anai-Artearen izenean, Fagoaga sendagilea mintzatu da. Sostengua erakustekotan, propio etorri da Paristik Gaillot apezpiku-ohia: «ni ziur nago: Euskal Herriak bere Askatasuna lortuko du».

Datorren larunbat honetan manifestazioa egongo da Baionan. Eta, zinez, Iparraldean urte mordoia pasa dugunoi, oroitzapen zaharrak dakartzigu honek guztiak: erlojua gure herri zorigaitzokoa geldituz bako berezale.

Orain dela 25 urte, hain zuzen, Baionako Katedrala bihurtu zen abertzaletasunaren kokaleku. 1970eko martxoaren 20an, ekintza sail ugari baten hastapenez, 21 abertzalek hain baituzuten hantxe gose-greba famatu bat. Hamar errefuxiatuarekin batera, hamaika ipartar aberkidek aldarrikatu zuten «euskaldun guztiak Euskal Herrian bizitzeko eskubidea».

Orduan ere Anai-Artea elkartek kudeatu zuen gose-grebariaren defentsa (Fagoaga bera urrun ez zebilelarik). Orduan ere «biolentzek» burutu zuten gosealdia; artean «demokratek» ez-ikusia eta ez-entzuna egiten zutelarik. Orduan ere Madril eta Parise eskuz esku ari izan ziren abertzaleen kontra...

Alferrik joan ote dira 25 urte hauek? Hori sinets ezazi nahi digute. Noski. Baina ezer ez dago ustelagorik gure etsaien esperantza ero hori baino.

H E M E R O T E K A

● egin

Itxurazko egia

Ez dut dudarik egiten Euskal Herrian pertsona asko ETArekin ekinbide armatuaren kontra dagoela, ezta oraindik inork beregain hartu ez duen Jose Maria Aldaya enpresa-gizonaren bahiketak ondoeza sortu duela ere. Errealitatea ukatzea litzateke kontrarikoa baieztatzea.

Baina beste horrenbeste esan daiteke azken egunotan komunikabideek zabaldukoak. «Euskal gizartearen ahobateko erantzun» hori egunkarietako orrialdeetan, irratietako uhinetan eta telebistetako irudietan eman da, ez beste inon. Ez da egia, titular handitan jarritakoaren



Honek GAL bat eratu zuen. Honek finantzatu egin zuen. Honek karea bota zuen. Hau aberastu egin zen... Eta potoilo pikaro honek prentsaren bidez jakin zuen guztia. RICARDO Y NACHO / EL MUNDO

kontra, euskaldunon gehien-goak dogoeneko mobilizatu eta bularrean lazo urdina dararamala. Errealitate birtualaren fenomenoaren aurrean gaude.

Baina zergatik desitxuratu behar dituzte gauzak? Lazoa ez daramaten guztiak ez daude ETArekin ihardueraren alde.

Batzuk bai, beste batzuk zalantzak dituzte eta gainerakoak kontra daude.

Zergatik, orduan, inposatu nahi dute lazo urdina? Egia esan, inplikazio politiko askotxo hartu du dogoeneko sinbolo horrek, babilu baten askatasuna eskatzeko ezetzik

sektore zabal bati eraso egiteko ere erabiltzen baitute Paktoak alderdietako ordezkariak.

Beste kasu batzuetan bezala, ezker abertzalea kaltetua gerta dadin saiatuko dira itunkideak, beste ezeren gaitetik, baita Jose Maria Aldayaren biziaren gaitetik ere. Bortxaz eginiko estrategia baten kati-bu dira aspalditxo, gatazka alfer-alferrik luzatzen duen estrategia zentzugabearen kati-bu, alegia.

Orain ikusteko dago ezker abertzalea eta, bereziki, Herri Batasuna erasoaldiari aurre egiteko gai diren, beste guztiak bat egingo baitute horien kontra. Jakina, itsasontzi onak ekaitz garaian frogatzen dira.

INAKI ALTUNA

ZUZENDARIARI

Beti jakin izan dugu

Lasa eta Zabala brutalki torturatuak izan ziren baina hau jakiteak ez gaitu ustekabeen harrapatu, betidanik jakin izan dugu eta. Gainera GALen ekintzak direnez, erraz gertatzen da ahotsa altatzeko baita behatz salataria ere; baina nortzuek egin zuten basakeria hura? Arregi, Zabala, Anuk, Iantzi, Calvo... eta beste batzuek, ezker abertzale maltzurraz 'erakutsiak' izan direnek, atxilotetatik irterekoan mota guzietako torturak salatzen dituzte; beldurrak jota hiltzen direla edo infarto batengatik. Nortzuek torturatu zituzten emakume eta gizon hauek?

Ekologistei deialdi bat egin nahi diet, hain ondo borrokatzen baitira desagertzearen dauden espezie horiek bizirik mantentzeko eta errespetatzeko. Kontutan har dezaten, Espainia eta Frantzia artean badaukagula desagertu zorian dagoen herri bat, amasa hartu ezinik aurkitzen dena, zapaldua eta kulturalki guztiz ahaztua.

Euskal alderdi bozemaile guzteei eskatzeko ez dituztela tortura, hil edota gartzelara beraien anaia.

Euskadin bizi diren espainiar guzteei deialdi bat egiten diet; beraien estatuaren

dirigenteei eskatzeko, ez daitezela haiez baliatu urkatzaile bezala eta emateko informazio osoa behar diren akzioak egiteko eta menperatzaile edo askatzaile izaten jakiteko.

Azken finean, emakume eta gizon orori egiten diet deialdi; gure botoekin, nahi gabe, depredadore handiak gu desagertzera lortzen du eta.

Adi! Herri honek ez du desagertu nahi. Altxa gaitzen! Zutik! Borroka gaitzen, batzuk ez desagertzeagatik, besteak ez desagertze horretaz konplize ez izateagatik.

TXARO GUERRERO BALIÑO
Arrasate (Gipuzkoa)

Ikaskideen eskubideen alde baraualdian

FIHEZI zein Psikologian itxialdi eta baraualdian gauden ikasle zein irakasleek, honako idazkiaren bidez, gogoeta hauek luzatu nahi dizkiogu Euskal Herriko Unibertsitateko instantzia ezberdinen zein Euskal Herriko biztanleria osori:

1.-Gure bi ikaskide, Joxe Mari Dorronsoro eta Pakito Mujika, apirilaren 22az geroztik gose greban daude euren bizibaldintza oinarrikoen exijentzian (ikas-

teko eskubidea, liburutegira sarbidea...). Hauekiko elkartasunik zintzoena adierazten dugu eta euren erreindikazioekin bat egin (zenbait irakasle Fresnesko zuzendariari igorri gutunaren harian).

2.- Ez dugu ikasleen heriotza gehiagorik nahi; bi ezagutu ditugu, Juan Karlos Alberdi urmietarra eta Pello Mariñelarena, hauek ere espetxeak suposatzen duen ankerkeriaren biktima izan direlarik. Eurentzako gure oroimenik kamurrena.

3.- Euskal Presoak Euskal Herriaraztearen ezinbestekotasuna aldarrikatzen dugu, oinarriko eskubide horien garrantzia bezala, egun etengabe zanpatuak.

Zentzu horretan gure baraualdiak gure ikaskideen ikasketen eskubideen aldarrikapena izan nahi du, bizi-baldintza egokien aldarrikapenarekin bat.

Modu berean EHUin diharduten agente desberdinak, zein Euskal Herriko biztanlegoa presoekiko elkartasunez antolatuko diren ekintza eta iniziatiba desberdinetan parte hartzea animatzen ditugu.

Ikasketako eskubidea, denon eskubide! Klasean nahi ditugu!

ZORROAGAKO PRESOEN ALDEKO TALDEA
Donostia


GAIA JARRITA



Italiako Giroa

Italiako Giroa ez dut baztertuko, Berzinek darabilzki horrenbeste truko. Meriturik ez diot inori kenduko, aukerak dituztela ezin egin uko, Indurainek ez baitu parterik hartuko.

XABIER SUKIA



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaris: INAKI URLA

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Gereentea: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBEDEAK

Egoitza negusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain

☎ 300 222 / Erredakzio faxa: 300 255 / Publizitate faxa: 300 707

Araba: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Iritzi dorrta) / 31011 Iruña

☎ 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zaballuru Enparantza, 2. Leherria. / 48003 Bilbo

☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panaceta 14, 1 / 503 Pesta kutsatila, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11